

TEKNOLOGIA BARRIAK. Bezera mota barri bat jaio dala eta, internet erabiliz erantzun gura deuto horri Eroskik

Internet bidezko merkataritza gunea ipini dau Eroskik Bilbo Handirako

8.000 produkturen artean aukeratu eta erosketak etxean jaso ahal izango dira

Iñigo Olabarri | BILBO

Gasteizen urte eta erdian apro-
bea egin eta gero, Bilbon zabal-
du dau Eroski taldeak on-line
supermerkatua. Itxura barria
eukiko dauen Eroskiren webgu-
nean sartu eta on-line erosteko
aukerea erabili gura dabene-
k 8.000 produkturen artean auke-
ratu ahal izango dabe.

Eroskiko arduradunek jakina-
razo ebenez, 8.000 produktu
horreek 14 sailetan banatu ditue.
Kontserbak, jaki freskoak,
garbikuziko produktuak eta
bestelakoak be eskaintzen ditu
sareko merkataritza gune barri
horrek.

Erosleak behar dituan pro-
duktuak aukeratu, eta handik
24 ordura etxean eukiko ditu.
Erosleak berak aukeratu ahal
izango dau ondoen jatorkon or-
dutegia. Erosketak etxera eroa-
tearren, 995 pezeta kobrako
ditue.

Erositakoa etxean hartu eta
aldatu beharrekoak aldatu eta
gero ordainduko dau erabiltzai-
leak. Oztaran dagoen ezer alda-
tu edo itzuli gura badau, beraz,
horretarako aukerea eukiko

dau eta diruari jagokonean egin
beharreko aldaketak be or-
duantxe egingo dira.

Ordutegi askatasuna da inter-
net bidezko erosketek emoten
dauen beste aukera garrantzi-
tsua. Astelehenetik barikura
goizean hasi eta iluntzeko
21:00etara arte jaso ahal izango
dira erosketak etxean. Bilboko
Alde Zaharra izango da ordute-
gi desbardina eukiko dauena.
Izan be, leku horretan eroske-
tak goizeko 9:00etatik
11:00etara baino ezin izango di-
tue hartu. Zapatuetan arrastiko
15:00etan amaituko dira bana-
ketak, Eroskiko arduradunek ja-
kinarazo ebenez.

Beste bezera mota bat jaio da

Hiru urte daroaz Eroskik on-
line merkaturaren proiektuan be-
harrean. Epe horretan ikusi
dabe bezera barri bat jaio behar
dala. Mikel Madariagak, Eroski-
ko jardura barrien zuzendaria,
aitatu ebenez, «denporea
berarentzat gura dauen bezeroa
sortu dira. Erosketak egiteko
bide tradizionala ez da bape
erosoa pertsona horreentzat».

Zerbitzu barriak bezera ho-
rreentzat dira, batez be. Eros-
kiko merkataritza guneetan dago-
zan produktuak dira atzo aur-
keztu eben on-line
supermerkaturaren be. Produktu
freskoen kasuan apustu berezia
egin dabela be esan eban Mikel
Madariagak. Gasteizen egin da-
ben urte eta erdiko bidean arra-



EGUNKARIA

Gasteizen hasi zan, eta orain Bilbon be internet bidezko merkataritza gunea eukiko dau Eroskik.

FRESKOAK

Gasteizen urte eta erdian
egon dan on-line
merkaturaren ikusi dabenez,
produktu freskoen eskaria
oso handia izaten da

KALIDADEA

Internet bidez erosten
ausartzen dan bezeraok
esperientzia hori
errepikatzea lortu gura
dau Eroskik

kasta handia euki dauen arloa
izan da. Internet bidez erosten
dabenez betiko bidetik erosten
daben bezeraok baino produk-
tu fresko gehiago erosten da-

bela esan eban Mikel Madaria-
gak.

Erronka handi bat aurrean

Gasteizen egin dabenez beharra
Bilbon egingo dabena baino
errazagoa izan dala be onartu
eben Eroskiko arduradunek.
Bilbo Handian milioi bat bizila-
gun inguru dagoz. Ganera,
Gasteizko ingurua betetea, lo-
gistika aldetik, errazagoa zan.

Eroskiren proiektu estrategi-
ko bat da internet bidezko sal-
mentena. Hori dala eta, ez
dabe erabiltzaileen aldetik
arreikuspenik gura izan, Mada-

riagak aitatu ebenez. Kalidade-
ko eskaintza emotea da hel-
burua. Madariagak dinoanez,
on-line erosten dabenez be-
zeraok esperientzia hori errepika-
tzea lortu gura dabe. Horretara-
ko bezeraok pozik euki behar
dirla jakinarazo eben.

Bilbo Handira mugatu dabenez
merkataritza gune birtual hori au-
rrerantz zabaltea izan lei-
ke helburu barri bat. Horretara-
ko atzo zabaldu eben egitas-
moak sendotu egin beharko
dauela aitatu eben Eroskiko ar-
duradunek. «Jenteak erantzun-
ten badau, zabalduko dogu».

ZOLLO. Gaur arrastian hasiko dira jaiak, eta euskera hutsean egingo ditue

Ehunka kilo odoloste prestau ditu Larrenak sanmartinetara joango diranei emoteko

I.B.

Zolloko Larrena alkartean odo-
lostek egiten egon ziran, atzo
arratsaldean, bertako herrita-
rrak. Eguntan hildako txarrien
odolagaz eta euren ortuetako
barazkiak egin zituen odolostek.
Bihar, arrastiko 19:00etan,
jaietara joango diran guztien ar-
tean debalde banatuko ditue
odolostek, hain zuzen.

Jaiak gaur iluntzean hasiko
dira, txupinazoaren ostean M-N
Ezten taldeak eskainiko dauen

erromeriagaz. Bihar, barriz, txar-
riak eta ogia banatu ostean,
musikeagaz hasiko dira, arrasti-
ko 20:30ak aldera, Arrankudia-
gako musika eskolako gazteen
doinuakaz. Ostean, Ugaoko
Iraide Bilbao eta bere taldearen
txandea izango da, eta gauari
bidea egiteko, Alaitz eta Maider
trikitilariak.

San Martin egunean, dome-
kan, txistulariek txangoa egin-
go dabe goizean goizetik, eta
eguerdiko 12:30etan Takolo,
Pirritx eta Porrotx pailazoak

izango dira. Hirukotea urtero
izaten da Zollon, taldea osatu
ebenetik San Martin eguna hor
ospatu dabe eta, Nerbioi erre-
kearen ezker aldean euskeraz
bizi dan herri bakarrean.

Jaiak datorren asteko zapa-
tuan amaituko dira, hilaren
17an. Lehenengo eta behin,
esku pelota partidua izango
dira, eta, ostean, herri bazkaria.
Mahaiaren inguruan bilduko
dira herritarrak eta, bertakoak
izanik be, hortik kanpo bizi di-
ran zollotar guztiak.

www.circuitocoliseo.com

ZINEMAZaleak

LOTIK GORA ARETO
DITUGU ZINEMA
ESKAINTEA OSOA
GOZA DEZAZUN.
OSOA.

PRODUKzio HANDIETATIK
HASI ETA EGILE-ZINEMARAINO.

Eta zu ZINEMAZalea zara?

SARREREN SALMENTA: 944 310 310
EDO BEKEREN OROTAIAKO
KUTXA AUTOMATIKOETAN

CAPITOL. bilbao • COLISEO. bilbao • IDEALES. bilbao •
MULTICINES. bilbao • BILBONDO. basauri
• MAX CENTER. barakaldo